



Gkef FGdA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

Memoria 2022

**“Desberdintasunak ikusarazten,
aukerak sortuz ”**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
KIROLA

Aurkibidea

1

SARRERA _04

2

JUSTIFIKAZIOA ETA DATUAK
"BEHAGI Gizarte-Behatokia" _06

3

PLAN ESTRATEGIKOA _08

- 3.1 XEDEA _08
- 3.2 IKUSPEGIA _08
- 3.3 BALIOAK _09

4

HELBURU OROKORRAK _11

5

LAN - ILDOAK _12

- 5.1 ORGANIGRAMA _13
- 5.2 GIPUZKOAKO KLUBAK ETA ATXIKITUTAKO
NAHIZ ATXIKI GABEKO ELKARTEAK _14

6

JARDUERA - PLANA 2022 _15

6.1 KIROL-EREMUA _16

- 6.1.1 LIZENTZIEN TRAMITAZIOA _16
- 6.1.2 TXAPELKETEN ANTOLAKUNTZA _17
- 6.1.3 KIROL-DIZIPLINA. ESTATUTUAK, ERREGELAMENDUAK ETA HAUTESKUNDE PROZESUAK _22
- 6.1.4 GIPUZKOAKO ESKOLA KIROL EGOKITU ETA INKLUSIBOA _22
- 6.1.5 ESKOLA KIROL INKLUSIBOA: EKI GIDA _25
- 6.1.6 UDALEKUAK- UDA 2022 GIPUZKOA _26
- 6.1.7 KIROL-TEKNIFIKAZIOA _28
- 6.1.8 KLUBEN KIROL- ESKOLEI ASISTENTZIA _33
- 6.1.9 GIPUZKOAKO KIROL- ERAKUNDEEI ASISTENTZIA _37
- 6.1.10 EMAKUMEAREN AHALDUNTZE AKTIBORAKO PROGRAMA _38
- 6.1.11 ENTRENAMENDU FUNTZIONALA _40
- 6.1.12 FORMAKUNTZAK _41

6.2 GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETA SENTSIBILIZATZEKO ESPARRUA _44

- 6.2.1 SENTSIBILIZAZIO JARDUNALDIAK _44
- 6.2.2 KIROL BARRERAK KANPAIN A _54
- 6.2.4 KOMUNIKAZIO JARDUERAK _56
- 6.2.5 BOLUNTARIOTZA PROGRAMA _57

6.3 HEGALAK ZABALIK FUNDAZIOARI LAGUNTZA TEKNIKOA _58

6.4 URETAKO ESTIMULAZIO GOIZTIARREKO PROGRAMA _58

6.5 PRAKTIKETAKO IKASLEEN PROGRAMA _58

6.6 BIZIPOZA PROIEKTUA ETA LANKIDETZA _59

7

BABESLEAK ETA LAGUNTAILEAK _60

1.

Aurkibidea

GKEFk 2022ean zehar **Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin** lanean jarraitu du, **GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN KIROL EGOKITUA** ikusarazi, bultzatu eta kudeatzeko.

Gure **2017-2020 PLAN ESTRATEGIKO**-an oinarrituta, **Foru Aldundiak** Gipuzkoan bultzatzen duen kirol kultura aldatzen laguntzen jarraitu dugu, klubien elkarlanarekin eta federazio honetako langile eta zuzendariak gidatuta. Goi-errendimenduaren alorrean, gainera, azken urteotan **Kirolgi eta Euskal Federazioarekin** elkarlanean, **GKEFk eta Hegalak Zabalik Fundazioak** koordinatzen duten **Teknikazio programaren** bitarteko fruituak jaso ditugu eta oso harro gaude, **TOKIO-2021 Paralinpiar Jokoetan BAT Basque team**-en bidez bi igerilari gipuzkoarrek lortutako emaitzak direla eta: *Iñigo Llopis/ Nahia Zudaire...*

Desgaitasuna duten pertsonen kirolean sartzeko aukera berriak izan ditzaten lanean jarraitu dugu azken urtean. Hori dela medio, udalerrietako kirol-politiketan eragitea izan da helburuetako bat, desgaitasunaren ikuspegia txertatuz, nahiz eta urte zaila izan den horretarako.

Gizartea sentsibilizatzen jarraitzen dugu kirolaren bitartez, izan ere, oraindik oztopoak aurkitzen ditugu kirol aukera ezberdinen eskaintzetan. Bide horretan ezinbestekoa da Gipuzkoako udalerririk ezberdinen inplikazioa, horrela sortuko baita denontzako kirola ikuspegia. Gizartea sentsibilizatzea ez da erraza izaten ari; udalerririk bakoitzeko erakunde komunitarioak misio horretan sar daitezten itunak bilatzen jarraitzen dugu. Garrantzitsua da udalerririk guztietan gizartean parte hartzeko aukera gehiago izatea, pertsonen dituzten behar, aukera eta motibazioen arabera kirolean parte hartu eta esperientzia parteka dezaten.

Kirola desgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzeko tresna baliagarria da. Horregatik, garrantzitsua da udalaren gizarte- eta kirol-politikak aktibatzen laguntzea eta kirol egokituak transmititu ditzakeen energia, motibazio eta balioen trasmisioan partaide sentitzea.

Kirol parte-hartze mota honek, batzuetan, espazio espezifikoak eskatzen ditu, eta beste batzuetan, espazio integratzaileak antola daitezke, desgaitasuna duten pertsonen eta desgaitasunik ez dutenen jarduerak baldintza berdinetan partekatu ahal izan ditzaten. Argitu beharra dago baina, kirol inklusiboa ez dela berez ateratzen, ez beti behintzat, eta behar bezala eragin eta kudeatzeko, nahita egin behar dela apustua.

Desgaitasunen bat duten pertsonentzako kirol-zerbitzuak normaltasunez eskuratzea, kirol-politikek oraindik ere gainditu gabe duten arazo bat da, gainditu beharreko oztopo eta aurreiritzi asko daudelako oraindik.

Nahiz eta azken **10 urteotan** erakundearen aldetik sentiberatasun sozial eta apustu politiko handiagoa sumatzen ari garen desgaitasuna duten pertsonen kirola eskuratzeari dagokionez dituzten beharrekiko, oraindik ere argi dago beharrak ez direla ezagutzen: instalazio eta ekipamenduetarako irisgarritasuna, langile espezializaturik eza, ezagutzarik eza, kirola kudeatzeko politiketan normaltasunez integratzeko zailtasunak, etab. Aspektu hauek, pertsonen eskubidea den zerbaitetarako sarbidea baldintzatzen duten oztopoak dira.

Pixkanaka, gizarte- eta kirol-politikak irekiagoak dira, eta udal- eta lurralde-mailako apustu garrantzitsuekin ikuspegia aldatzen ari dira. Horren erakusgarri da **KIROLEAN ANIZTASUNARI ARRETA EMATEKO EREDUA, Gipuzkoako Foru Aldundiak** bultzatuta, lankidetzan estuan ari garelarik.

Azpimarratzekoa da 2022aren amaieran 20 urte beteko ditugula federazio gisa. Ibilbide horretan gero eta kirol-klub, kirolari, federazio, udal eta bestelako erakunde gehiago batzen dira. Horien guztien helburua da desgaitasuna duten pertsonen kirol-inklusioko lantzea.

2.

JUSTIFIKAZIOA ETA DATUAK "BEHAGI Gizarte - Behatokia"

2018an, 716.616 biztanletatik, 50.873 izan ziren %33ko edo hortik gorako desgaitasun balorazioa zutenak, hau da, **biztanleria osoaren %7**. Horietatik 28.060 pertsonak dute mendekotasun balorazioa (gradua I-III artekoa).

Horietatik guztietatik, pertsona gutxi dira udaletako kirol- eskaintzaren bidez edota **GKEFK Gipuzkoako Lurralde Historikoan** eskaintzen dituen beste zerbitzu espezifiko batzuen bidez (klub, elkarte eta eskola-kirol egokituko zerbitzuen bidez) kirola beren ingurune hurbilenean praktikatu dezaketanak.

Oraindik ere, baliabide eskasia dela eta, batez ere Donostialdetik urrunen dauden eskualdeetan, kirola praktikatu ahal izateko eskaera askori ez zaio erantzuna ematen. Une honetan, **"inklusioa modan dagoen hitza da"**, eta ez da behar bezala erabiltzen; lehenik eta behin, kirola praktikatu ahal izatea lortu behar da, eta ondoren, kirol-jardueretan inklusioa lortzeko borrokatu beharko da ezinbestez, inklusio sozialerako eta bizikidetzaren positiborako espazioak sortzen lagundu nahi badugu.

GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA garen aldetik, helburua da, Foru-aldundia eta Udal-erakundeekin lankidetzan, urritasunen bat duten edo beren kargura urritasunen bat duten seme-alabak dituzten pertsonen orientazio egokia izatea familia- eta lan- **b i z i t z a** uztartzeko, beren beharrak eta ohiko bizilekutik hurbilen dauden kirol-instalazioetara sartzeko aukeren inguruan informazioa eskainiz.

Federazio honek, **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** ezinbesteko laguntzarekin eta inguruko **enpresa eta kooperatiben** babesarekin, kirolerako aholkularitza-, orientazio-, antolamendu-, hedapen- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen ditu, eskualdeetako desgaitasun egoeran dauden pertsonen beharrak ardatz hartuta.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa, gaur egun atxikitako 30 klubek eta tramitatzen ari diren beste

batzuek osatua dago eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik utzitako zenbait eginkizun ditu, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kirol egokitua antolatu, sustatu eta zabaltzeko.

Gure lana **Gipuzkoako Lurralde Historikoan** dauden baliabideak koordinatu eta optimizatzen saiatzea da, eta zerbitzu eta pertsonen sare bat sortzea profesional, praktiketako ikasle eta prestakuntza espezifikoak duten boluntarioen artean.

Zerbitzu horien helburua kirol-arreta eta preskripzioa hobetzea da, eta desgaitasunen bat edo/eta patologiaren bat duten pertsonen osasuna, bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea, egokitutako jarduera fisikoaren bidez.

Kirola bitarteko egokia da bizikidetzaren hobetzeko, oztupoak gainditzen laguntzeko eta kirolaren esparruan gizarteratzea sustatzen laguntzen duten balio positiboak bultzatzeko.

2022ko JARDUERA PROGRAMAREN bitartez, ildo estrategikoak indartu eta sendotu nahi izan dira, eta datozen urteetarako proiektu eta ekintza zehatzak planteatu.

Horretarako, kirol egokituko klubekin eta zeregin horretan parte hartzen duten klub eta federazio konbentzionalekin lankidetzan jardun da.

Asmo handiko erronka da Gipuzkoako eskualde guztietan desgaitasuna duten pertsonen kirola bultzatzea, eskualde bakoitzeko arazoak, aukerak eta desberdintasunak kontuan hartuta.

Gure lehentasunetako bat eskola kirol egokitua eta inklusioa da. Pertsona bakoitzarentzat aukera egokienak sortzen dira, bai eta inguruneak horretarako egokitu ere, baliabide gisa honako hauek hartzen direlarik: udal-zerbitzuak, ohiko klubetako zerbitzuak, Gipuzkoako kirol egokituko klubetako zerbitzuak eta **GKEFK** eskaintzen dituen zerbitzuak.

2018an, 716.616 biztanletatik, 50.873 izan ziren %33ko edo hortik gorako desgaitasun balorazioa zutenak, hau da, biztanleria osoaren %7

Horregatik da garrantzitsua, erakundeek, sortu diren egituren lana bultzatzen eta babesten jarraitzea, desgaitasun edo patologiaren bat duten pertsonen kirolerako sarbide espezifiko edota inklusiboak, profesionalen prestakuntza eta sentsibilizazio ekitaldiak antolatzen jarrai dezaten.



3.

PLAN ESTRATEGIKOA

XEDEA

3.1 XEDEA

Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua gara, nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna, eta bertan biltzen dira kirolariak, laguntzaileak, teknikariak, epaileak eta epaileak, klubak eta kirol elkarteak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ezgaitasun egoeran dauden pertsonentzako kirola egin, sustatu eta antolatzeko. Helburu nagusiak hauek dira:

- **GIZARTEA ALDATZEN LAGUNTZEA** sarean egindako lankidetzaren esparru baten bidez, irisgarritasun unibertsaleko eta berdintasuneko baldintzak lehenetsuz sustatuz eta komunitateko baliabideak optimizatuz.
- **LAGUNTZA-SISTEMA INTEGRAL BAT SUSTATU ETA/EDO KUDEATZEA**, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako kirol-aukerak sortu eta familiei laguntza pertsonalizatua emateko gai izango dena.
- **KIROL ZERBITZU EGOKITU ETA ESPEZIALIZATUEN SORRERA SUSTATZEA**, horrelakorik ez dagoen lekuetan.

IKUSPEGIA

3.2 IKUSPEGIA

Arestian azaldutako esparru kontzeptuala kontuan hartuta eta ekarpen eta aurrekarien multzotik abiatuta, etorkizuneko ikuspegi hau ematen da:

• ETORKIZUNEKO IKUSPEGIA HIRU DIMENTSIOTAN:

1. Ingurune hurbilean ezgaitasuna duten pertsona guztiek kirola egiteko aukera izatea, gizarte bidezkoagoa sortuz.
2. Desgaitasunak dituzten pertsonak eskualde guztietan pixkanaka kirola egiten has daitezen aukerak sortzea, gure balioekin bat etorri, pertsonen zerbitzurako praktika etiko baten bidez eta etengabeko hobekuntzaren esparruan.
3. Helburu horiek ekonomia jasangarriarekin aurrera eramateko aukera ematen duten.

BALIOAK

3.3 BALIOAK

Halaber, **GKEFK** balio eta printzipio hauek definitzen ditu bere erakundearen garapen etikorako gida eta erreferentzia gisa:

• DUINTASUNA

Duintasunak pertsona errespetatzeko betebeharrak ezartzen ditu, bai eta pertsona hori eskubideen subjektu gisa onartzea ere. Duintasuna funtsezko eskubide eta betebeharren oinarria da. Gizaki oro berez baliotsua, ez-instrumentalizagarria, ekimen autonomo bat izateko gai dela aitortu eta eraginkortasunez errespetatzea esan nahi du, eta horrek bere gaitasunak behar bezala garatzeko eskubidea ematen dio.

• BERDINTASUNA ETA EKITATEA

Pertsona guztiok dauzkagu gure duintasunari dagozkion eskubide guztiak —eta dagozkien betebeharrak—, eta, aldi berean, gure ezberdintasunak eta berezitasunak onartzen ditugu. Garrantzitsua da pertsonen beren oinarriko beharrak ase ahal izatea, beren gaitasunak garatu eta beren bizitza-proiektuari aurre egiteko gizarte-laguntza izan dezaten.

Zuzentasunak justizia eta aukera-berdintasuna eskatzen ditu emakumeen eta gizonen artean eta gaitasun desberdinak dituzten pertsonen artean. Kasu honetan, kirola egiteko eskubideari buruz ari da, laguntza beharren arabera beharrezko baliabideak jarri.

• PERTSONALIZAZIOA

Gure jardura profesionalaren helburua erabiltzaileen bizikaltatea hobetzea da, pertsona diren aldetik, bakoitzaren ezaugarriak errespetatuz eta kolektibo generiko bateko kide gisa tratatu gabe; haien behar espezifikoak eta partikularrak onartuz; eta horietako bakoitzari erantzun pertsonalak emateko eskubidea bermatuz.

• ENPATIA

Erakunde honetan lan egiten dugun guztiok izan behar dugun ezaugarria da, beste pertsoneniko *h a r r e m a n* onak ezartzeko gai izan behar dugu. Talde osoarekin batera, gure ikasleak eta beraien familiak ulertu, lagundu, apoiatu eta motibatuzko gaitasuna landuko dugu.

• AHALEGINA ETA KONPROMISOA

Ahaleginaren balioa oso garrantzitsua da gure zereginean; gure kirol- eta gizarte-helburuak lortzeko estrategiak bilatzen jarraituko dugu.

Gure arreta eta energia guztia jarriko dugu gure lanaren garapena aurreikusitako denboran betetzeko. Konpromisoa hartzean, gure programaren helburuak lortzen lagunduko diguten lanak aurrera ateratzeko gure gaitasunak guztiak jartzen ditugu.

LAN PRINTZPIOAK:

**DUINTASUNA,
BERDINTASUNA, EKITATEA,
PERTSONALIZAZIOA,
ENPATIA, AHALEGINA ETA
KONPROMISOA**



GKEFren erabiltzaileen eta haien familien artean sustatu eta aintzat hartzea helburu duten jarduera-printzipioetan zehazten dira.

Beraz, gure jarduera guztiak, erakunde eta profesional gisa, helburu hauek ditu:

- 1. Bizi-kalitatea, objektiboa eta subjektiboa bilatzea** (behatua eta hautemana edo esperimendatua), helburu ukazina baita, banakoen arteko desberdintasunak kontuan hartuta eta ezgaitasun eta/edo mendekotasun handiena duten pertsonen arreta berezia eskainiz.
- 2. Artatzen ditugun pertsonen autodeterminazioa sustatzea**, haien autonomia sustatuz eta banakotasuna bermatuz.

- 3. Kirolaren bidez gizarteratzeko estrategiak bultzatzea**, komunitatean bizitzeko beharra aitortuz eta behar hori asetzeko eta gainerako herritarren zerbitzu eta ingurune berak erabiltzeko eskubidea gauzatzuz.
- 4. Pertsonen arteko harreman esanguratsuak garatzen laguntzea**, banakotasuna errespetatuz eta desberdintasunetik normalizazioa sustatuz.
- 5. Baliabideak** pertsona bakoitzaren beharren arabera kudeatzea, ekitate-printzipioaren arabera.
- 6. Arreta pertsonalizatua** eta hurbileko tratua eskaintzea erabiltzaileei eta haien familiei.
- 7. Gure lantaldea programarekin konprometituta dago**, eta hori bermatzeko lan egiten dugu.

4. HELBURU OROKORRAK

- Gipuzkoako Lurralde Historikoan **kirol egokitua antolatu eta garatzea**, kirol klubekin batera.
- **Kirola sustatzea** eta Gipuzkoan ezgaitasuna duten pertsonen artean **zabaltzea**.
- **Desgaitasuna duen kirolaria bere ingurune naturalean integratzea** eta kirol-klubetarako ibilbidea erraztea.
- Kirolaren ardura duten pertsonen **prestakuntza orokorra eta etengabea sustatzea**, haien ezagutza hobetzen lagunduz.
- Kirol-erakundeen **esparru inklusiboak bultzatzeko estrategiak garatzea**, benetako gizarteratzea bultzatzeko.
- Ezgaitasuna duen kirolariari eskaintzen zaion jarduera **teknifikatu eta profesionalizatzea**.
- **Proiektuak lortzeko finantzabideak bilatzea** eta ekonomikoki eta sozialki jasangarriak izaten laguntzea.
- **Kirol egokituko klubekin** eta ezgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten elkarteekin **batera lan egitea**.
- **Kirol egokituko eta kirol inklusiboko topaketak sustatzea**.




5. LAN - ILDOAK

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak, bere kirol klubekin batera, azken **20 urteotan** programa ezberdinak sortu, kudeatu eta gauzatu ditu pixkanaka. Programa horien bidez, desgaitasun egoeran dauden pertsona askok jarduera fisiko eta kiroleko programetan parte hartu ahal izan dute.

2022an, lan-ildoak bultzatzen jarraitu dugu, adin-talde bakoitzeko zerbitzuak areagotzeko asmoz, baita kirol-sektore honi buruzko ezagutza eta prestakuntza areagotzeko asmoz ere, kirola egiteko aukera-berdintasuna hobetzen lagunduz




5.1 ORGANIGRAMA



5.2 GIPUZKOAKO KLUBAK ETA ATXIKITUTAKO NAHIZ ATXIKI GABEKO ELKARTEAK

GKEF osatzen duten kirol elkarteak ondorengoak dira:



6. JARDUERA - PLANA 2022

Azken denboraldietako lizentzien eta aisialdi-txartelen datuetan oinarrituta, gure kirol-politikek arlo hauek garatzen jarraitu dute, diskriminazio positiboko neurrien eta irisgarritasun unibertsalaren ikuspegian oinarrituta:

- **Berdintasun-plana** eta emakumeen jarduera fisikoa eta kirol-jarduera sustatzea
- **Zahartze aktibo- deportiboa** desgaitasuna duten pertsonengan
- **Buru-nahaste larria duten pertsonak** eta kirola
- **Espektro autistaren nahastea** (TEA) duten pertsonen kirol- praktika
- **Entzumen urritasuna** duten pertsonak eta kirola
- **Anputazioak** dituzten pertsonak eta kirola
- Kirolaren bitartez **mendekotasuna duten pertsonen** arreta
- **Estimulazio goiztiarra**, aretoko eta uretako psikomotrizitatearen bidez

GAZTERIA ETA KIROL ZUZENDARITZA NAGUSIAK KIROLAREN ARLOAN GIPUZKOAKO KIROL FEDERAZIOEI ESKUORDETUTAKO EGINKIZUNAK:

- Gipuzkoako gizartearen jarduera fisikoa eta kirola **SUSTATZEA**, bizi-kalitatea eta osasuna zaindu eta hobetzeko oinarritzko faktore gisa, baita identitate eta gizarte-kohesioko elementu gisa ere.
- Gipuzkoako kirol sistemaren egituraketa eta sistema hori osatzen duten kirol eragile guztien lankidetzeta eta koordinazioa **BULTZATZEA**.
- Derrigorrezko eskolatzte-aldian, eskola-ume guztien kirolerako aukera-berdintasuna eta kirol-hastapena **SUSTATZEA**, kirola egiteko ohiturak gipuzkoar guztiengana zabal daitezzen.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK BULTZATUTAKO DESGAITASUNARI KIROLEAN ARRETA EMATEKO EREDUAREN ESPARRUAN, PROGRAMA HAU ONARTU ZEN, ETA 2022AN GAUZATU BEHARREKO EGINKIZUN DELEGATUAK ZEHAZTU ZIREN.

6.1 KIROL-EREMUA

Egokitutako kirol-zerbitzuen, orientazio-zerbitzuen eta sentsibilizazio-programaren bidez, desgaitasun- eta/edo patologia-egoeran dauden pertsonen ongizatea hobetzen lagutzen ari gara. Gainera, kirolaren esparruan bizikidetzatza hobetzen, oztopoak eraisten eta gizarteratzea sustatzen laguntzen duten balio positiboak transmititzen laguntzen dugu etengabe.

6.1.1 LIZENTZIEN TRAMITAZIOA

GKEFK aholkularitza-zerbitzua ematen die parte-hartzaileei, lurralde-, probintzia-, nazio- eta nazioarteko txapelketetan, beren kirol-modalitateari eta partaidetza-mailari dagokion lizentzia izapidetu ahal izan dezaten.

Urte osoan zehar zerbitzu hau jardunean dugu informazioa eta aholkularitza behar duen edonorentzat. Desgaitasunen bat duten parte-hartzaile guztien lizentzien eta aisialdi-xtartelen (AT) izapideak egiteko, desgaitasun ziurtagiria indarrean eduki behar da, eta lizentzia nahi dutenentzat, berriz, nahitaezko azterketa medikoa egin behar da.

GUZTIRA	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
LIZENTZIAK ETA AT (GUZTIRA)		
586	126	457
KIROLARIAK		
490	95	395
KIROLARI LIZENTZIAK		
153	31	122
KIROLARI AT		
337	64	273
AT GUZTIAK		
378	79	299
22 URTE AZPIKOAK		
291	68	223



6.1.2 TXAPELKETEN ANTOLAKUNTZA

2022an, jarraian aipatzen diren lehiaketa ofizial hauek antolatu ditugu edo Gipuzkoan kirol egokituaren modalitatea praktikatzeko interesgarritzat jotzen diren lehiaketak.

IGERIKETA EGOKITUKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

DATAK: 2022-04-02
TOKIA: Udal kiroldegian, Ordizia
PARTEHARTZAILE KOPURUA: 60

GIPUZKOAKO XII. EUSKAL PILOTA EGOKITUKO TXAPELKETA

Gipuzkoako Euskal Pilotako Federazioarekin elkarlana

BERDINTASUNA ETA EKITEA

Euskal pilota egokituko ligaren barruan, alde batetik adimen urritasuna duten pertsonentzako liga bat antolatu da eta, bestalde, gurpildun aukiko erabiltzaileak diren pertsonentzako beste bat.

Adimen urritasuna duten pertsonentzako teniseko paleta espezialitatean, 2021-2022 denboraldian 2 txapelketa antolatu dira. Batetik, buruz buruko txapelketa eta bestetik bikotekako txapelketa.

Gurpildun aukiko erabiltzaileak diren pilotarien kasuan, 2021-2022 denboraldian 2 txapelketa antolatu dira. Batetik, buruz buruko txapelketa eta bestetik bikotekako txapelketa.

BURUZ-BURUKO TXAPELKETA:

- JARDUNALDIA:** 2022.01.29
TOKIA: Amasa, Amasa-Villabona
DESKRIBAPENA: **Adimen Urritasuna:** buruz-buruko txapelketako jardunaldien hasiera
- JARDUNALDIA:** 2022.02.05
TOKIA: Añorga, Donosti
DESKRIBAPENA: **Gurpil aukian:** gomazko paleta txapelketaren hasiera.
- JARDUNALDIA:** 2022.02.12
TOKIA: Errenteria
DESKRIBAPENA: **Adimen Urritasuna:** buruz-buruko txapelketako 2.jardunaldia .
- JARDUNALDIA:** 2022.02.26
TOKIA: Asteasu
DESKRIBAPENA: **Adimen Urritasuna:** buruz-buruko txapelketako 3.jardunaldia .
- JARDUNALDIA:** 2022.03.12
TOKIA: Idiazabal.
DESKRIBAPENA: **Adimen Urritasuna eta Gurpil Aulkia:** paleta txapelketako BURUZ-BURUKO FINALAK



BINAKAKO TXAPELKETA:

1. JARDUNALDIA: 2022.03.26

TOKIA: Arrate, Andoain

DESKRIBAPENA: **Adimen Urritasuna:** binakako txapelketako jardunaldien hasiera

2. JARDUNALDIA: 2022.04.09

TOKIA: Gurutzeaga, Zestoa

DESKRIBAPENA: **Gurpil Aulkia:** binakako txapelketako 2.jardunaldia

3. JARDUNALDIA: 2022.05.14

TOKIA: Aitzuri, Zumaia

DESKRIBAPENA: **Adimen Urritasuna y Gurpil Aulkia:** paleta txapelketako BINAKAKO FINALAK

GIPUZKOAKO XII. EUSKAL PILOTA EGOKITUKO FINALA

PARTE-HARTZAILEAK ETA EMAITZAK ADIMEN URRITASUNA

Multzo Gorria:

1. Lander Ortega eta Xabier Villar
2. Lorea Iribar eta Ibai Gómez

Multzo Urdina:

1. Joseba Altuna eta Eneko Sagarmendi
2. Iraitz Huegun eta Haritz Lertxundi

PARTE-HARTZAILEAK ETA EMAITZAK GURPIL AULKIA

1. Manu Quesada eta Beñat Lizaso
2. German Elkoro eta Asier Navaridas



ESPAINIAKO GURPIL- AULKIKO ESGRIMA TXAPELKETA

Espainiako gurpil- aulkiko esgrima Txapelketaren laugarren froga burutu da Donostiako Pio Baroja kiroldegian. Alex Prior Gipuzkoarra izan da Espainiako txapelduna sable modalitatean.

DATAK: 2022-04-07 eta 2022-04-08

TOKIA: Pio Baroja Kiroldegia, Donostia

PARTEHARTZAILE KOPURUA: 9 kirolari, 6 autonomia-erkidegotakoak.

Emakumeen parte-hartzea handitu egin da (2 kirolari eta teknikari bat).

PARTE-HARTZE LIBREKO PROBAK ATLETISMOKO TXAPELKETAN

Gipuzkoako Atletismo Federazioak antolatutako proba atletikoen artean, eta Federazio horrekin izandako lankidetzari esker, bere egutegiko proben barruan egokitutako atletismo-probak sartzen dira, non gure Federazioan lizentzia duten kirolariek parte har dezaketen. Denboraldi honetan, hiru egunetan parte hartu ahal izan da: 100 metro lauetan, 200 metro lauetan, zakutxoan jaurtiketa, altuerakoa zein distantziakoa.

DATAK: 2022-04-09 / 2022-05-07 / 2022-06-04

TOKIA: Belodromoa eta Anoeta Estadioa, Donostia

6.1.2.1. Beste eragile batzuek antolatutako lehiaketa edo txapelketetan LANKIDETZA:

X. KIROLA ELKARREKIN - IGERIKETA

DATA: 2022-03-13

TOKIA: Bikuña Kiroldegia, Legazpia

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: 74

Atzegi, KE-k antolatutako jarduera eta bertan igerilekuko jarduera kudeatzen dugu (izen ematea, mahai teknikoak, emaitzak).



Julen Uribe utzitako irudiak

EUSKAL PILOTA EGOKITUKO MASTERCUP TXAPELKETA 2022

KANPORAKETA JARDUNALDIA

DATAK: 2022.03.27

TOKIA: Antzizar, Beasain

FINAL

DATAK: 2022.04.03

TOKIA: Astelena, Eibar

PARTE-HARTZAILEAK: 36

EMAITZAK:

Adimen Urritasuna:

1. Lorea Iribar y Eneko Sagarmendi
2. Sheila Cueto e Iraitz Huegun

Gurpil Aulkia:

1. German Elgoro y Beñat Lizaso
2. Yann Meunier y Maixi Cabanne

ESPAINIAKO 2. PILOTA EGOKITUKO TXAPELKETA 2022

KANPORAKETA JARDUNALDIA

DATAK: 2022.12.11

TOKIA: Astelena, Eibar

FINALA

DATAK: 2022.12.18

TOKIA: Labrit, Pamplona

PARTE-HARTZAILEAK: 36

EMAITZAK:

Adimen Urritasuna:

1. Leire Esnal eta Eneko Sagarmendi
2. Mikel Vega eta Joseba Altuna

Gurpil Aulkia:

1. Gaizka Fernández eta Beñat Lizaso
2. Joseba Lasa eta Edorta de Anta

I. MIKEL IZAGUIRRE EUSKAL PILOTA EGOKITUKO NAZIOARTEKO TXAPELKETA.

Mikel Izaguirre omentzeko asmoz, zeina Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko (GKEF) eta Mindara elkarteko presidente izan zen, gurpildun aulkiko jokalariei zuzendutako euskal pilota egokituko txapelketa antolatu da Erretereriako Mindara eta Usurbilgo Pagazpe elkartearen elkarlanaren bitartez, eta GKEFren babesarekin.

KANPORAKETA JARDUNALDIA

DATAK: 2022.11.19

TOKIA: Agustina Otaola, Erretereria

FINALA

DATAK: 2022.11.20

TOKIA: Usurbil, Usurbil

PARTE-HARTZAILEAK: 24

EMAITZAK:

Gurpil Aulkia:

1. Yann Meunier eta Maixime Cabanne
2. Manuel Quesada eta Asier Navaridas



6.1.3 KIROL-DIZIPLINA. ESTATUTUAK, ERREGELAMENDUAK ETA HAUTESKUNDE PROZESUAK

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak konpromisoa hartzen du bere estatutuak eta erregelamenduak egiteko, bere jardueran sortzen diren kirol-gatazkak ezagutu eta konpontzeko, organo judizialen eta arbitralen eskumenari kalterik egin gabe, eta bere erregelamendu-arauak betetzen direla zaintzeko eta horien arabera diziplina-ahalmena erabiltzeko.

6.1.4 GIPUZKOAKO ESKOLA KIROL EGOKITU ETA INKLUSIBOA

Eskola Kirol Egokituko programa 2006.urtean jarri zen martxan Gipuzkoako zenbait udalerritan.

Desgaitasunen bat izateagatik jarduera fisikoa eta kirola era normalizatuan egiteko aukerarik gabe aurkitzen ziren zenbait gazteren familien beharrei erantzuteko asmoarekin jaio zen egitasmo hau.

Desgaitasun fisiko, psikiko, sensorial edota organikoren bat zuten gazte hauek, **bai ikastetxe bai klubetako kirol eskaintzatik kanpo** gelditzen ziren **sistematikoki 6-16 urte bitartean**, Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero ikastetxe, udal, federazio eta kirol klubekiko elkarlanean abian jartzen zuen **ESKOLA KIROLEKO JARDUEREN PROGRAMATik** kanpo, alegia.

Arrazoiak ezberdinak ziren (desgaitasunari arreta egokia emateko bidean era guztietako baliabideak nahiz hezitzaileen prestakuntza egokiaren falta nabarmenak izan dira beti) baina oinarrian, **eskola adineko kirolaren egitura eta antolamenduari ikuspegi inklusibo eta hezitzaileago bat falta zitzaielako** dela esan dezakegu.

2006.urteaz geroztik, beraz, GKEF eta GFaren arteko elkarlanaren ondorioz, desgaitasuna zuten eskola umeei **EKE** programan parte hartzeko aukera bermatu zitzairen Gipuzkoan zehar, **urtez-urte egonkortu eta GIPUZKOAKO eskualde guztietan saretzen joan den errealitate bat bihurtu delarik**.

Eskola Kirol Egokituko programaren bitartez, beraz, 6 urtetik aurrera desgaitasuna duten eskola-umeen, eta 21 urte artean Gela egonkor eta ZIG geletan dauden ikasleen kirol jarduera espezifikoak bermatzen dira ikasturtero, norberaren behar eta nahiak kontutan hartuz, kirol- ibilbide ezberdinak asetzen saiatzen garelarik:

- Gorputz- hezkuntzako edukiak ardatz hartuta, Kirol anitzeko hastapen programa bat eskaini nahi zaie desgaitasuna duten gazteei, norberaren beharretara gehien egokitzen den kirol- jarduera, taldekatze mota eta egokitutako programazio batekin.

- Klubetako kirol eskoletarako bidean ere laguntzen diegu, kirol- modalitate espezifiko bat landu nahi duten gazte haien kasuan.

2021/22 ikasturte honetan, desgaitasuna duten **150 gazte ingururi** eman zaie arreta **EKE** programan, eta beste hainbesteri, **UDA** programan (desgaitasuna duten haur eta gazteentzako udaleku espezifikoaren programa), beraz, argi dago **oraindik ere EKE programaren beharra ezinbestekoa dela** inor ez dadin desgaitasuna izateagatik jarduera fisiko eta kirolerako aukerarik gabe gelditu eta **kirolean inklusioaren erronka lortzeko** lanean jarraitu beharko dugula ere ezin da zalantzan jarri, ikasle guztiek, salbuespenik gabe, hastapen- eta lehiaketa kirol-jarduerak bere ikastetxeko eta/edo klubeko ikasleekin egin ahal izango dituzten testuinguruak egoki prestatuz.

Funtsezkoa izango da kirolean inplikaturik gauden estamentu guztiok konpromisoa hartzea pertsonekin eta dituzten beharrek, eta, beraz, **bazterkeriarik gabeko haur eta gazte guztien parte-hartzea, beraien osasuna eta ongizatearekin**. Honekin lotuta, esan beharra dago Gipuzkoan hasia dela jada eraldaketa, eta indarra hartzen ari dela gainera, **Kirolean desGAITASUNARI Erantzuteko Ereduan** jasotako politika zehatzen definizioaren bitartez, baita **ohiko eskola-kiroleko ereduaren inguruko hausnarketa** prozesuak eragin dituen aldaketen bitartez ere (jarduerak genero edota gaitasun aldetik talde mixtoetan praktikatzeari, asteburutako lehiaketaren ordezkari topaketak planteatzeari, errendimendua bilatu beharrean helburu hezitzaileagoak dituzten saioak sustatzea, entrenatzaileak beharrean hezitzaileak izendatzea,...).

Hala ere, asko dago aldatzeko oraindik **desgaitasuna duten ikasleen beharrei arreta emateko garaian**, batez ere **TEA eta buru- nahiz garapen- nahasmenduak** dituzten gazteen kasuan. LHko etapan, eskola kirola ikastetxeen baitan antolatu eta garatzen denez, inplikazio handia ikusten ari gara azken urteotan desgaitasuna duten gaztekoen inklusio prozesuetan edo eta zenbait kasutan, gaztekoak GKEFren talde espezifikoetara bideratu ahal izateko informazio eskarian; DBHko etapan, aldiz, eskola adineko kirola klubetan bitartez antolatu eta garatzen denez, oso gutxi ematen dira inklusio prozesuak eta desgaitasuna duten nerabeek partehartze nabarmena dute GKEFko programa eta klubetan, baina ez kirol- klub konbentzional edo eta udal- kiroldegietako programetan.


Helburu nagusia, beraz, oraindik ere "Kirol- eta gizarte-ingurunea inklusiboagoa, lagunkoiagoa eta errespetuzkoagoa izan dadin laguntzea izango da, kirol-jardueraren bidez bizikidetzara sustatuz eta desberdintasunak errespetatuz, eta, horrez gain, haien beharrei erantzun eta parte hartzeko aukerak areagotuz."

2021-2022 ikasturtean Gipuzkoa guztian 22 talde espezifiko izan ditugu aktibatuta Eskola Kirol Egokituko programaren barruan, **92 erabiltzaileekin**, eta **hainbat inklusio prozesutan hartu dugu parte**, aholkularitza eman eta arreta egokia bermatzeko monitore espezifikoak

bideratuz: **Irungo El Pilar** ikastetxeko ikasle bati apoioa egin zaio bere gelakideen eskola kiroleko taldean eta beste bati **Urretxu Zumarraga** ikastolan; beste 2 erabiltzaileeri apoioa egin zaie bere ikastetxeko JolasHezi programan, **Zarauzko Salbatore Mitxelena** ikastolan. IGE programaren barruan ere beste **2 ikasleri apoioa** egin zaie (**Segurako Laiotz Ikastola eta Ordiziko Joxemiel Barandiaran**).

2022ko Iraila- abendua bitartean, aldiz, hauek dira EKEko taldeen inguruko datuak:

ESKUALDEA	HERRIA	2021-2022		2022 IRAILA-ABENDUA	
		TALDE KOPURUA ARETOAN	TALDE KOPURUA URETAN	TALDE KOPURUA ARETOAN	TALDE KOPURUA URETAN
DONOSTIALDEA	Donostia	3	4	6	4
	Andoain	0	0	1	0
	BURUNTZALDEA	Urnieta	0	2	2
BIDASOA	Hernani	3	0	4	0
	Hondarribi	1	2	1	3
GOIERRI	Irun	1	2	1	2
	Ordizia	1	0	2	0
UROLA GARAIA	Beasain	0	1	0	2
	Urretxu	0	1	0	2
TOLOSALDEA	Legazpi	0	2	0	0
	Tolosa	0	1	0	1
	Billabona	0	2	0	2
GUZTIRA		10	15	18	16



BESTE JARDUERA OSAGARRI BATZUK

Asteburuetakoko jarduerak edo topaketak: **GKEFK** asteburuetakoko jarduerak edo topaketa proposamenak egiten ditu; jardueren artean, alde batetik naturako jarduerak sustatzen dira, hala nola surfa, eskalada edo mendia, eta bestalde, kirol modalitate ezberdinen sustapen jarduerak antolatzen dira, hala nola **futbol, igeriketa, eskubaloia, goalballa, boccia, slaloma etab.**

2021- 2022 ikasturte honetako jarduerak osagarri moduan, alde batetik, pandemia aurreko dinamika berreskuratuta **Gipuzkoako Mendizale Federazioarekin** elkarlanean zenbait **natur- jarduerak** antolatu ditugu:

ORIENTAZIO JOLASA KRISTINA ENEA PARKEAN, DONOSTIAN

DATA: 2022.05.06

Partehartzaile kopurua: 9 gazte, GMFKo 4 teknikari eta GKEFKo 3 begirale



IBILDALDIA IBAIETA IBILBIDEAN ZEHAR, IRUNEN

DATA: 2022.05.13

Partehartzaile kopurua: 8 gazte, GMFKo 4 teknikari eta GKEFKo 3 begirale

Topaketa edo parte-hartze irekiko jardunaldiak dira



RCTSS- ATE IREKIAK

DATA: 2022.09.15/16

Partehartzaile kopurua: 2 gazte taldek izan zuten Padela probatzeko aukera



HITZARMENA

Urnietako udalarekin hitzarmen sinaketa, eskola kirol egokituko zerbitzua aurrera eramanez ahal izateko herrian.

DATA: 2022.03.31



UROLA ERDIA- AURKEZPENA (IRAILA)

Urola Erdiko 2022-2023 Eskola Kirol Egokituko eskaintzaren aurkezpena egin zen, Azkoitian. Bertan, Azpeitia eta Azkoitiko udaletako ordezkariekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Marea Urdinarekin bat egin genuen. 2022an, bailarako haur eta gazteek eskola kirola egiteko aukera izan zuten, beste edozein pertsona bezala!



6.1.5 ESKOLA KIROLA INKLUSIBOA (EKI) 2022

2020 IRAILEan, ESKOLA KIROL INKLUSIBOKO GIDA sortu zen eskola-kiroleko agenteei zuzenduta, urritasun-egoeran dauden neska-mutilek kirola egiteko dituzten ERRAZ-TASUNAK ETA OZTOPOAK aztertzeko.

Gida hau eskola-kiroleko koordinatzaileentzat eta begiraleentzat prestakuntza-baliabide izatea nahi dugu, batez ere INKLUSIOA AUKERA NORMALIZATUA izan dadin.

Baina ESKOLA KIROLEAN ANTOLAKETA- ETA EGITURA-URRATS asko egin behar dira oraindik, BENETAKO INKLUSIOA bideragarria izan dadin.

2021 urtetik, gure federazioaren web orrialdean eskuragarri dago "Ekintzarako orientabide praktikoak" izeneko dokumentua. Honako dokumentu hau, 2020an sortutako gidaren atal bat da.

GIDA HONEKIN LORTUKO DIRENAK:

- Gaiaz trebatzeko **interesa eta jakin-mina** piztea.
- Populazioaren ezaugarrien **aniztasunari** erantzun egokia emateko gaitasuna hobetzea.
- **Ikasleen inklusio prozesuetan laguntzeko erabil daitezkeen estrategia** batzuei balioa ematea.
- Kontuan hartu beharreko **antolakuntza jarraibide** batzuk ematea.
- Pertsona guztien benetako parte-hartzea errazteko, ohiko eskola-kirolean **gainditu behar diren oztopoak** hobeto ulertzea
- Kirola egitean, jarduera eta **espazio inklusiboak** sustatzea.



"ESKOLA ADINEKO KIROL INKLUSIBOAGO BATEN ALDEKO GIDA" AURKEZPENA

DATA: 2022.11.18
DONOSTIA - KIROL ETXEA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarrekin, desgaitasunaren kirol arretarako gida berezi bat atera dugu. Gida desgaitasunaren begirada berri batekin egin dugu: Kirol Gida honek, inklusioaren bidean kontzientzia hartu eta aurrera egin ahal izateko zenbait ezagutza eskuratzeko tresna bat izan nahi du, kontuan hartuta eskubide bat ez ezik, bizimodu bat ere badela.

"ESKOLA ADINEKO KIROL INKLUSIBOAGORAKO GIDA"-REN FORMAKUNTZA



6.1.6 UDA 2022 PROGRAMA GIPUZKOAN

Aurtengo udara, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak **UDA programa** aurrera eramaten duen zortzigarrena da dagoeneko, **urritasun egoeran dauden haur (8-12 urte bitartean) eta gazteei (12-21 urte bitartean)** zuzendua, eta bigarren urtea da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria sailetik diru-laguntza bat jasotzen duena programa aurrera eraman ahal izateko. Foru Aldunditik jasotako diru-laguntzari esker, programa hau **7 udalerrri** ezberdinetan jarri ahal izan da martxan: Donostian, Irunen, Azpeitian, Beasainen, Zarautzen eta Aretxabaletan. Horietan, guztira, **128 izan dira parte-hartzaileak, 38 monitorea eta 10 pertsona boluntarioak**. Udalerrri horiez gain, Erreterian, GKEFrekin elkarlanean, **Mindara elkarte** izan da Oarsoaldeko gazteentzako aisialdi-programa espezifikoaren antolatzaile duen elkarte arduraduna.

Hainbeste urte eta gero, programa honetan parte hartzen duen gazte kopurua kontutan izanda, ezin da zalantzan jarri programa hau gazte kolektibo konkretu honentzat ezinbesteko bihurtzen dela, udaran aisialdirako antolatzen diren beste eskaintza guztietatik kanpo gelditzen bait dira eta opor garaiko goizak lagun- artean eta modu aktiboan pasatzeko gogoia eta kasu askotan, beharra, nabaria delako. GKEF egoera honetaz oso kontziente da, ikasturtean zehar Gipuzkoan hedatuta daukan **ESKOLA KIROL EGOKITUKO SAREAN** parte hartzen duten gazteen egoerak oso ondo ezagutzen dituelako eta badakigu, beraien aisialdia era autonomoan antolatu edo lagun- talde naturalak sortzeko zailtasunak direla eta, horrelako eskaintza espezifikorik egingo ez balitz, gazte asko eta asko etxean bakartuta geldituko lirakeela.

Gazte ororentzat izaten dira aisialdiko jarduera antolatuak garrantzitsuak. Hala ere, lehen aipatu bezala, desgaitasuna duten gazteentzat, modu honetako jarduerak duten garrantzia areagotu egiten da. **Desgaitasuna duten gazteen familien kasuan, jarduera mota hauek ezinbestekoak bilakatzen dira, beraien seme-alaben zaintza eta norberaren lan-bizitzarekiko kontziliazio aukerak ahalbidetzen dituelako hein batean.**

Arrazoi hauek oinarrian eta ezinbestean, foru aldundiaren diru-laguntzari esker, aurtengo, aurreko urteko eskaintza zabaldu dugu eta UDA programa beste eskualde berri



batetan martxan jartzea posible izan dugu. Horrek, gazte bakoitzari, bere bizilekutik gertu dagoen udaleku batean parte-hartzeko aukera eskaintzea ahalbidetu digu.

Programa honetako helburuek jarraipena eta sakontasuna eman nahi diote, ikasturte osoan zehar martxan dagoen Eskola Kirol Egokituko programaren helburu zein edukiei (motrizitatea hobetu, gaitasun fisikoak landu, harreman sozialak eta norbere jarrerak landu, ikaskuntza prozesuak hobetu, jolastu, ondo pasatu etab.). Ingurune honetan, gazte hauen opor-garaia dela kontuan hartuz, aisialdi espazio atsegin, seguru eta osasuntsu bat eskaini nahi zaie. **Gure asmo nagusia beraz, parte-hartzaileek lagun taldean eta aire librean ondo pasatzea da, eta bide batez, jarduera fisiko, kultural zein norbere ezaugarrien araberrako kirol esperientziak probatu eta bizitzea.**

Bestalde, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak gaur egun urritasuna duten gazteentzako aisialdi eskaintzan dagoen hutsunea bete nahi du eta gazte hauek udako goizak modu ezberdin eta aktibo batean igarotzeko aukerak eskaini nahi ditu.

2022eko uda honetan, **7 udalerritan aktibatu dugu UDA programa**. Udalerrri bakoitzean erabiltzaileen interesen araberrako txandak eskaini dira eta jarduera **asteleheneetik ostiralera, 9:30-13:30 orduetara** egin da.

UDA 2022- EKAINAREN 27TIK UZTAILAREN 22RA

UDALERRIAK	Donostia	Irun	Beasain	Azpeitia	Zarautz	Erreteria	Aretxabaleta	GUZTIRA
PARTE-HARTZAILE KOPURUA	43	11	7	7	6	40	14	128
BEGIRALE KOPURUA	11	4	3	3	2	8	7	38
BOLUNTARIO KOPURUA	3	2	0	1	1	3	0	10



6.1.7 KIROL-TEKNIFIKAZIOA

Kirol teknifikazioa, gazteak kirolerako duen doai edo gaitasun adierazgarriak identifikatzean, etorkizuneko kirolari edo/eta talentua izatetik goi errendimendura iristeko ibilbideko etapa da. Etapa honetan, kirolariek errendimenduari loturiko gaitasun ezberdinak lantzea da helburua.

Kirol egokituaren kasuan, kirol modalitateetan hasteko adina berantiarren ondorioz, gerta daiteke kirolari baten teknifikazio etapa heldutasunean hastea. Izan ere, kirol egokituaren beranduago hasteaz gain, adinez aurrera joan arren, kirol maila altua izan daiteke zenbait kiroleretan.

IGERIKETA EGOKITUKO MUNDUKO TXAPELKETA (PORTUGAL)

EAurten, 2022an, bi Gipuzkoarrek parte parte hartu dute, Nahia Zudaire eta Iñigo Llopisek hain zuzen ere.

Emaizta ederrak lortu dituzte bertan:

Nahia Zudaire:

- Bortzezko domina 400 metro estilo librean
- Bortzezko domina 4x50 metro errelebu mixtoan
- Bortzezko domina 4x100 metro estilo librean

Iñigo Llopis:

- Zilarrezko domina 100 metro bizkar estiloan S8
- Zilarrezko domina 100 metro errelebu mixtoan
- Bortzezko domina 100 metro errelebu mixtoan



GKEF-K TEKNIFIKAZIO PROGRAMA HAU EK ANTOLATU ETA HAIEN JARRAIPENA EGIN DU:

ETORKIZUNeko KIROLARIEN ETA TALENTUEN IDENTIFIKAZIOA.

